


MUSIKA BULEGOA

ERAKUSKETA

KANTHORIA ETA AUTO-TUNEA

EUSKARAZ EGINDAKO MUSIKAREN IBILBIDEA

Musika Bulegoak bere hamargarren urteurrena ospatzen du euskaraz egindako musikaren jatorriari, sorrerei eta erronkei buruzko erakusketa ibiltari batekin. Erakusketa honek XVII. mendetik gaur egunera arte euskal musikaren panoramaren garapena markatu duten mugarri garrantzitsuenak errepasatzen ditu, gure kultur paisaia garaikidea definitzen duten testuinguru soziokulturalei arreta berezia eskainiz.



Kuradorea:

Xabier Erkizia

Soinu artista, ikerlari independentea, ekoizle artistikoa, kuradorea eta entzulea. Azken 30 urteotan alor anitzetan egin du lan, beti, entzumena eta soinugintzarekin zerikusia duten egitasmotan. Musikaren arloan, bakarkako lanak argitaratu ditu internazionalki, eta kolaboratzaile zerrenda luzearekin egin du lan, musikari, konposatzaile edo ekoizle artistiko gisa.

Adituen batzordea:

Ion Celestino, Maite Arroita Jauregi, Roberto Moso, Jon Bagües

- 01 ARKEOLOGIA
- 02 AHOZKOTASUNETIK
- 03 ALFABETIZAZIOA
- 04 EKLOSIOA
- 05 KOMUNIKABIDEAK
- 06 DISKETXEAK
- 07 HIBRIDOAK
- 08 MAKRO

Euskaraz idatzitako lehen kantua zein den jakitea oraindik seguruenik ikastear dugun zerbait da. Europako protokantagintzaren erroetatik iristen zaigun XVII. mendeko Bereterretxeren kanthoriatik XIX. mendeko lehenbiziko kantari-autore izango zen, Jose Mari Iparragirreraino, ezinezkoa da euskal kantagintzaren urrats guztiak zehatz mehatz ezagutzea. Ehundaka izenik gabeko ahotsez trentzatutako soka luze bat da musikaren historia, eta gure kasua ez da ezberdina. Erregistroek, idatzizkoek nahiz soinuizkoek soilik ehundaka urte batzuetan atzera egiteko baliabideak ematen dizkigute, hutsune haundiekin beti ere, eta haiek ugaritu arabera osatzen dira gure kontakizunak, askotan aurreikusi ez ditugun gurutzatzeak erakutsiz.

Euskarazko kantuen jatorria topatzeko orduan, ahozkotasunean oinarritutako transmisio kate nagusia bertsolaritzaren bidez eta idatzizkoa berriz eliz kantutegiaren bidez egituratu zela jakinik, kantagintza moderno propio baten eraikuntzaren iturriak asmatzera abentura gaitezke.

Urrun joan gabe, 1900. urtean Leon Azoulayk Parisen edo Rudolf Trebischek 1914an Euskal Herrian zehar egindako lehenbiziko grabaketa fonografikoek, ordurarte belarriz edo paperez biziraundakoari soinua emateaz gain, agerian uzten dute bi tradizio bide nagusi horien arrastoa, eta ondorioz euskal kantagintza deitzen diogun horren oinarritzkoarkitektura.

Aldi berean ezin dugu ahortzi, XIX. mende hasieratik, oraindik paperean, hainbat musika editorek argitaratu zituztela euskaraz egindako musikak eta hein batean edizio hauei esker, Amerikatik joan etorrian ibiliko ziren hainbat musikengan eragin handia izan zuten Euskal Herrian egindako konposizio askok.

- 01 ARKEOLOGIA
- 02 AHOZKOTASUNETIK
- 03 ALFABETIZAZIOA
- 04 EKLOSIOA
- 05 KOMUNIKABIDEAK
- 06 DISKETXEAK
- 07 HIBRIDOAK
- 08 MAKRO

Herri baten kultur tradizioak ez dira sekula ezerezetik jaiotzen. Etengabe eraldatzen, kutsatzen, hibridatzen etazergatik ez, berrasmatzen diren keinu, hots eta ideien kate amaigabeekin trenkatzen diren korapilo konplexuak dira. Nortasun aferen logiketatik haratago, musikak ez dira sekula lekuan sortu eta bertan betirako geratzen diren kultur adierazpenak, aurreikusi ezin daitezken aho-belarriko joan-etorrien arrastoak baizik.

Euskal Herrian, musika herrikoiak bezala definitzen ditugun tresna, estilo eta jarduerak seguruaski esanahi baino jatorri ugariagoak dituzte atzean. Esaterako, txirulak eta trikitixak mendeetako alde dute haien artean, nahiz guk, gaur, ia maila berean kokatzen ditugun gure musika tradizioaren iruditerian.

Arrazoi batengatik edo bestearengatik, esentzialismoen eta defentsa sutsuen tentazioetatik libratzen direnean gertatzen dira aurrerapausu indartsuenak musika tradizioen baitan. Esaterako, 60ko hamarkadan, oraindik diktadurarenpean, gure historia modernoak ezagutu duen euskal tradizioen berreskuratze olatu indartsuenarekin batera, berrasmatze prozesu nabarmenak gertatzen direla ere onartu behar dugu, tradizio horiek garai berrietan izan beharko lituzketen esanahietara egokituak, alegia, eguneratuak. Euskaraz abestutako pop musikaren lehen saiakerak edo Ez dok amairu bezalako kultur mugimenduek, haien aurretik nagusiki ahozkoatasunaren esparruan biltzen ziren hainbat tradizio, garaiko joera eta modetara eta 68ko maiatzaren ondorioz zabaldutako agenda berritzaileak eskatzen zituen moduetara ekarri zituzten. Errejimen zentsuratzaille baten zirrikituak arakatuz, kultur urjentziak gidaturik egindako eraldaketen isla dira.

Halabehar kolektiboen alabak diren musika hauek, poliki poliki periferian geratzen den baserri mundutik metropolieta egin beharreko bidaiak marrazten dituzte, jatorriak gogoratuz baina asmatuz, aldi berean.

- 01 ARKEOLOGIA
- 02 AHOZKOTASUNETIK
- 03 ALFABETIZAZIOA
- 04 EKLOSIOA
- 05 KOMUNIKABIDEAK
- 06 DISKETXEAK
- 07 HIBRIDOAK
- 08 MAKRO

70. hamarkadan Ikastolen ugaritzeak edo Euskal Herrian euskaraz bezalako kanpaina sozialek bultzatu zuten euskararen indartze, errotze eta zabaltze erraldoiean, musikak ezinbesteko papera jokatu zuen. Aurreko hamarkadan, ez soilik musikan, baizik literaturan, antzerkia edo dantzari abiatutako ariketa artistiko ausartek ezarritako mugarriek, alfabetatze progresibo baina etenik gabeko bat eragin zuten, euskara baliabide expresibo eta hiztegi aberatsagoekin jantziz.

Alfabetizatu gabeko baserritarren mintzaira akitu eta anakroniko (folkloriko) bat zela errepikatzen zuten ahotsen aurrean, euskara mundu garaikidea azaltzeko eta eztabaidatzeko gai eta prest zegoen tresna baliagarri bat zela erreibindikatzeko eta erakustea zen helburua. Eta musika, erraz eta azkar zabaltzeko duen berezko dohaiarengatik, beste edozein arte esparru baino eraginkorragoa bihurtu zen lan horretan. Musikari belaunaldi berriek, euskara, beste edozein hizkuntz bezala, gai, arazo eta errealitate berriei buruz kantatzeko tresna ere badela ulertu zuten, eta aldi berean, ariketa horiek jende gehiago erakarri zuen euskarara. Beste modu batera esanda, musikak hartu zuen hizkuntza garraiatu eta barreiatzeko ardura, seguruenik gizakiak sekula asmatu duen teknologia eraginkorrena baliatuzerrima eta metrika. Bertsolariek mendeetan baliatu zute mnemoteknia garai berrietara egokitu zuten.

Feedback prozesu horren hedatze-uhinak hainbat pentsamendu ildo garaikide (ezker ideologiako mugimenduak, langile antolakuntza, lehenbiziko olatu feministak, mugimendu antikolonialistak, internazionalismoa, ekologia...) eta estetika (musikaren elektrifikazioa, atzerriko pop, rock eta jazz musiken eragin gero eta nabarmenagoak, lehenbiziko musika industriak...) elkargurutzatu zituen. Hiriguneak bihurtu ziren euskal kulturaren epizentro nagusi, baserri giroa ia behin-betiko atzean utziz.

- 01 ARKEOLOGIA
- 02 AHOZKOTASUNETIK
- 03 ALFABETIZAZIOA
- 04 EKLOSIOA
- 05 KOMUNIKABIDEAK
- 06 DISKETXEAK
- 07 HIBRIDOAK
- 08 MAKRO

Diktadura frankistaren amaierak, gizartearen arlo guztietan, baita euskal musikarenean ere, kultur leherketa bat eragin zuen.

Zentsuraren itzal itogarritik eta klandestinitatearen beldurak amnistiatzeko bidean, Euskal Herriko komunitate artistikoak bi hamarkada lehenago ezarritako erronkei eutsi eta eguneratze prozesu berriei aurre egin behar izan zien aldi berean. Atzerriko eragin musikalen sarbideak normalizatu eta eskuragarri bihurtu ahala, beste hainbat mendebaldeko gizartetan bezala, tribu musikalek bere egin zituzten aurreko belaunaldien urjentziak, baina ikuspegi eta helburuak norabide ezberdinetara begira jarritz. Musika estiloen ernetze erraldoi bat gertatu zen, punk-a bezalako estilo informal, berritzaile eta erradikalak lehen lerroan jarritz, eta orokorrean euskaraz konposatzen ziren rock eta pop doinuen espektroa ikaragarri zabalduz: metala eta bere azpigeneroak, triki-popa, hard-rocka, hardcorea, klubeko musika elektronikoak etabar.

Urgentzia kolektiboak alde batera baino, norabide ezberdinetara begira jarritz, 80ko eta 90ko hamarkadetako ez soilik estilo, baizik musika praktikanteen ugaritze masiboak behar berriak ere ekarri zituen berekin, eta poliki-poliki paisaia berri bat marrazten hasi zen Euskal Herriko musikagintzaren baitan, ideia zentral baten inguruan: profesionalizazioa. Musika euskaraz egitea jada ez zen ekonomia garbirik gabeko militantzia kontu bat bakarrik, merkatu afera bat baizik. Emanaldiak erreibindikazio ororen performance izateaz gain, musikari euskaldunen kontzertuak eta diskoak ekosistema zabalago baten parte bihurtu ziren, pausu txikiak baina ziurrak ematen hasi zen kultur industria berri eta aberats baten erakusgarri baizik.

01 ARKEOLOGIA

02 AHOZKOTASUNETIK

03 ALFABETIZAZIOA

04 EKLOSIOA

05 KOMUNIKABIDEAK

06 DISKETXEAK

07 HIBRIDOAK

08 MAKRO

60ko hamarkadan abiatutakoz prozesuek indar traktore nagusi izan dira eta badira oraindik, sinbolikoki bada ere, euskal musikaren ekosistema posible baten proiektua osatzeko orduan. Lehenbiziko saiakera umezurtz baina temati haiek, beraien eredutasun egarriz, artista belaunaldi berriengan arrasto sakonak uzteaz gain, hainbat egitasmo paralelo ekarri eta eragin zituzten. Sustengu eta arrakasta soziala jaso heinean, musikak, eta euskararen inguruan sortutako ekosistema sozialak, bere leku propioak exijitu eta sortzeko baliabideak berenganatu zituen.

Horrela, 80ko hamarkadara iristerako, paisaia berri bat marrazten hasi zen: soilik euskaraz egindako irrati eta telebista publikoak sortu ziren, irrati librean sarea ikaragarri zabaldu zen, fanzineak eta herri aldizkariak sortu ziren han eta hemen, kontzertu aretoen nahiz gaztetxeen sareak ikaragarri aberastu ziren eta euskaraz argitaratu ziren diskoak eta maketak urte gutxi lehenago imajinatu ere ezingo zen abiaduran ugaltu ziren.

Fenomeno hauek hiriburuetan izan zuten beharbada eragin haundiena, baina ezin dugu ahortzi, oso abiadura ezberdinetan sortu zirela euskal geografia guztian zehar. Iparralde-hegoalde dikotomiari so egitea besterik ez dago prozesu horien erritmoak zein ezberdinak izan daitezken ulertzeko. Gaur egun ere.

Baina berezitasun geografiko horiez gain, euskal musikaren industria deitzen dugun horrek, ez du beharbada antzeko beste herrialdetan topatu ditzazkegun ekosistemen aldean ezberdintasun haundirik. Azken finean, elementuak antzekoak dira, paisaia da zeharo ezberdina dena. Hizkuntzak a priori ezarritako merkatu-mugak, oinordetzan jasotako txikitasunaren lotsak edo gatazka politiko eta armatuek eragindako filiak eta fobiak, oso kasu berezia bihurtzen dute hemengoa.

Euskal musikaren kezka nagusia ez da jada biziraupena, presentzia kontu bat baizik.

- 01 ARKEOLOGIA
- 02 AHOZKOTASUNETIK
- 03 ALFABETIZAZIOA
- 04 EKLOSIOA
- 05 KOMUNIKABIDEAK
- 06 DISKETXEAK
- 07 HIBRIDOAK
- 08 MAKRO

Azken hamarkadaotan beraien erreferentzialtasuna apaltzen joan bada ere, azken ehun urteotan disketxeek edo label diskografikoek ezinbesteko lana egin dute euskal musikaren izaera bera gorde eta jendaurrean aurkezteko garaian.

XX. mende hasieran, gramofonoenaro bete-betean, musikaren multinazionalizazioaren eragile ziren Columbia bezalako disketxeak Euskal Herrian beraien fabrikak eraikitzen hasi ziren, nagusiki atzerriko joeren arrakasta haundiak eta haiek erreproduzitzeko gailuak Iberiar penintsulan komertzializatzeko. Laister konturatu ziren ordea, merkatu berri horietan errotzeko modu azkarrena bertako musikak argitaratzea zela, souvenir logikatik egin arren.

Hamarkada batzuk beranduago, diskogintzaren industriak izandako nazioarteko zabaltze erraldoiaren ondotik, erdi-klandestinitatean edo iparraldean lanean hasi ziren lehen disketxe proiektuek (Goiztiri, Herri gogoa, Agorila, Xoxoa..) musika sozializatzeko eredu berriak sortu zituzten, eta azkenik 80ko eta 90ko boomak iraun zuen bitartean (Elkar, Esan Ozenki, IZ, Gor...) disketxeen lan garrantzitsuena, euskarri ezberdinak ekoitzi eta banatzeaz gain, kuradoria izan da. Batzuetan arrisku komertzial larriak hartuz, eta bestetan merkatu seguruak egonkortzeko intentzioarekin, disketxeek utzi duten ondareak osatzen du euskal musikaren katalogoaren zati haundiena.

Ziurrenik, azken hamarkadetan teknologia digitalek gogorren astindu duten kultur sektorea musikarena izan da. Gure kontsumo ohiturak eta ondorioz musikarien ekoizteko moduak errotik eraldatzeaz gain, kultura numerikoak disketxeak zentralitatetik baztertu ditu, artistaren independentzia ustezko baten alde. Baina aldaketa horrek bere albokalteak ere izan ditu, ez nolanahikoak: gaur egun, Silicon Valleyko zerbitzariak gordetzen dute euskal musikaren ekoizpenaren zati haundiena.

- 01 ARKEOLOGIA
- 02 AHOZKOTASUNETIK
- 03 ALFABETIZAZIOA
- 04 EKLOSIOA
- 05 KOMUNIKABIDEAK
- 06 DISKETXEAK
- 07 HIBRIDOAK
- 08 MAKRO

Gaur egun, euskal musika, kultur proiektu nazional gisa, modu modularragoan eta likidoagoan mugitzen den zerbait da. Beharbadamodu zehaztugabe eta desberdinean ere. Itxura batean, amaitu ziren indar zentrifugoen garaiak, proiektu kolektibo erraldioenak, edo helburu bateratuen diskurtsoen garaiak. Gigahertzioen abiaduran mugitzenden kapitalaren erritmoak bestelako arauak ezartzen ditu. Eta euskaraz abestea ez da dinamika horietatik kanpo gelditu. XXI. mendeko euskal kantariaren profila jada ez da bertso zaharrak modernizatzen dituen gizonezko trobadore burges heterosexualarena. Garai hauetako euskal kantaria genero edo jatorri anitzekoa izan daiteke, eta kantu berean kanta dezake euskaraz, gaztelera, frantsesez, ingelesez, edo euskañolez. Ez dio horregatik euskal musikari eta euskaldun izateari uzten, baina baliteke etiketa horri inolako baliorik ez ematea. Ez behintzat garai batean izan zezaken karga politikoa.

Euskal musika, nahitaez, kontzeptu porotsuago, hibridoago eta nahi bada, queer-agoa da orain. Euskal Herriko mugetatik haratago oihartzun egiteko ahalmena duen musika da, bere molde propioak eraikitzeko proiektua bigarren plano batean utzi eta kanpoko merkatuen arauak ezarritako lehian jolasten dena, bidean, txikitasunaren abantailak eta berezitasunak galtzeko arriskuak onartuz.

Internetek inposatu duen ugaritasun mugagabearen promesak, besteak beste, diskoaren kontzeptua atomizatu du kantuaren alde egiteko, kolektibotasunari indarra kendu dio izar indibidualaren distiraren alde apustu egiteko eta musikaren iraunkortasuna zalantzan jartzen du momentuko inpaktu galkorraren alde. Memoria gero eta lanbrotsuagoa den garaian, adimen artifizialaren kimeraren hurrengo pausaren zain utzi du kultur ekoizpen oro.

Baina musikak, euskaraz egindakoak ere, beti egin duen bezala, bere ihesbideak bilatuko ditu, bere kontakizunak plazaratzeko moduak topatuko ditu.

01 ARKEOLOGIA

02 AHOZKOTASUNETIK

03 ALFABETIZAZIOA

04 EKLOSIOA

05 KOMUNIKABIDEAK

06 DISKETXEAK

07 HIBRIDOAK

08 MAKRO


Ez da soilik Euskal Herriko musikaren baitan gertatzen den fenomeno: Garai berriek ekarri dituzten musika kontsumitzeko ohituren itzalean abiadura bizian eman diren eraldaketa guztiek, momentuz, masifikaziorako joera argiak eragin dituzte.

Urte gutxitan, ehundaka edo milaka diskoei buruzko salmentei buruz aritzetik miloika biderkatzen diren erreprodukzioei buruz hitz egitera pasa gara urte gutxitan. Nazioartean bezala, hemen ere, datu anabasa horien atzean zer bestelako fenomeno gertatzen diren erreparatu gabe, zalantzarik gabe, eskala aldatu da. Esaterako, arreta masiboen joera horiek zuzeneko musikaren kontsumoan ere eragin nabarmenak izan ditzazketela erakusten hasi dira berriki.

Hainbat hamarkadetan zehar, euskal musika, gehienetan halabeharrez, modu undergroundean, edo gutxienez oso etxeko eskalan eta modu autonomoan forma hartzen joan den mugimendu artistiko eta sozial bat izan da, hizkuntzaren normalizazioarekin paraleloan gertatu den fenomeno. Garaikidetasunaren agenda ordea guztiz bestelakoa da, momentuz behintzat. Sare sozialek eragindako ikusgarritasun eta exposizio obsesiboaren eta errealitatearen mediatizazio eta espektakularizazioaren lilura indartsuegia eta azkarregia da hizkuntza txiki baten erabilera estatistiken zain egoteko. Fokuak agintzen du altabozaren gainetik. Pantailak, ez megafonoak, egiten du oihu ozenen.


Makroaren eta abiaduraren logikak, komunikazio birala, jaialdi erraldoiak, ikuskizun eksklusiboak eta marketina lehenesten ditu, kulturaren eraldatzeko gaitasuna garai zaharretako mitologiaren parte izatera kondentatuz. Eta honezkero dakigun bezala, fenomeno hauek, nagusiki, errealitateak baino ilusioak proiektatzen dituzte.

Kontsumo modu homogeneousatuek produktua bera ere homogeneousatzen ote duten da susmoa. Eraldaketarako tresnarik gabe geratzeak izan beharko luke kezka. Musikak, arte orok bezala, ez du erantzunik emateko beharrik, galderak eragiteko erantzunkizuna baizik.




PEANA
50x50x80cm
2 Unitate

Imitaziozko harria




BANKUA
100x25x45cm
2 Unitate

Imitaziozko harria




MAHAIA
160x80x95 cm (fondo 20cm)
Unitate 1

Imitaziozko harria
Metalezko hankak
Metakrilato gainazala



MAHAIA
160x80x90 cm (fondo 10cm)
2 Unitate

Imitaziozko harria
Metalezko hankak
Metakrilato gainazala



HESIA
300X50X200 cm
9 Unitate

Metalezko hesia


OINARRI GORRIAK
18 Unitate


Kautxuzko oinarriak







ZUTABEA
77,7X77,7X230 cm
2 Unitate

Margotutako egurra









TB TELEBISTA PEANA GAINEAN


B BANKUA

M MAHAIA

H HESIA

Z ZUTABEA

[illegible]



TB TELEBISTA PEANA GAINEAN

B BANKUA

M MAHAIA

H HESIA


Z ZUTABEA

A'd'OHENARE

ETXATILAREN **28^{na}** PHASTVILA AROZKILAREN **11^{na}**

MYSKILDIKO
herriak antolatutürk

Herriak antolatutürk, 1985. urteko irailaren 11an.



TB TELEBISTA PEANA GAINEAN

B BANKUA

M MAHAIA

H HESIA


Z ZUTABEA



Euskal
abesbatza
antologia

Euskal
abesbatza
antologia

Euskal
abesbatza
antologia




zigor opera



zigor opera





TB TELEBISTA PEANA GAINEAN


B BANKUA

M MAHAIA

H HESIA

Z ZUTABEA





TB TELEBISTA PEANA GAINEAN

B BANKUA

M MAHAIA

H HESIA

Z ZUTABEA


ETXEBARRIKO EUSKARA ASTEA 96
KONTZERTUA
LIN TON TAUN
PILT



MAIATZAK 3, OSTIRALA, 23-etan
ETXEBARRIKO PLAZAN








TB TELEBISTA PEANA GAINEAN


B BANKUA

M MAHAIA

H HESIA

Z ZUTABEA





TB TELEBISTA PEANA GAINEAN

B BANKUA

M MAHAIA

H HESIA

Z ZUTABEA

(187)

60ko hamarkadan abiatutako prozesuek inlar traktore nagusi lan dire eta badiere ostendik, zabalduki badi ere, euskal musikaren elusitena posibke baten proiektu eustake ordian. Lehenbiziko salazera amurtu baina berrituki badi, beraien erredakzioan ugarit, artista beldunaldi berriengan arrazo sakonak kurtas gain, badiabai egiteare pendilo elarri eta eragin afluente. Suteingua eta amurtuak ustala jaso beldun, musikab, eta euskararen ingurua sortutako elusitena ustala, bere leku propioak esjitu eta sortutako beldunak berrienganatu ston.

Horela, 60ko hamarkadara histerako, paila berrituki badi murtatzen hazi zen, solik euskaraz egindako irriti eta telebista publizitatek sortu giren, irriti libreen sara iragunak zahaltu zen, beldunak eta hant aldiatariak sortu ziren hazi eta haren, kontzertu zentzen nahit gastezen saraak iragunak aberatu ziren eta euskaraz agitaratu ziren diskoak eta maletak urte guri lehenago inguratu ere edingo zen abiatutara ugeltu ziren.


(188)


1960ko hamarkadan abiatutako prozesuek inlar traktore nagusi lan dire eta badiere ostendik, zabalduki badi ere, euskal musikaren elusitena posibke baten proiektu eustake ordian. Lehenbiziko salazera amurtu baina berrituki badi, beraien erredakzioan ugarit, artista beldunaldi berriengan arrazo sakonak kurtas gain, badiabai egiteare pendilo elarri eta eragin afluente. Suteingua eta amurtuak ustala jaso beldun, musikab, eta euskararen ingurua sortutako elusitena ustala, bere leku propioak esjitu eta sortutako beldunak berrienganatu ston.

1960ko hamarkadan abiatutako prozesuek inlar traktore nagusi lan dire eta badiere ostendik, zabalduki badi ere, euskal musikaren elusitena posibke baten proiektu eustake ordian. Lehenbiziko salazera amurtu baina berrituki badi, beraien erredakzioan ugarit, artista beldunaldi berriengan arrazo sakonak kurtas gain, badiabai egiteare pendilo elarri eta eragin afluente. Suteingua eta amurtuak ustala jaso beldun, musikab, eta euskararen ingurua sortutako elusitena ustala, bere leku propioak esjitu eta sortutako beldunak berrienganatu ston.

1960ko hamarkadan abiatutako prozesuek inlar traktore nagusi lan dire eta badiere ostendik, zabalduki badi ere, euskal musikaren elusitena posibke baten proiektu eustake ordian. Lehenbiziko salazera amurtu baina berrituki badi, beraien erredakzioan ugarit, artista beldunaldi berriengan arrazo sakonak kurtas gain, badiabai egiteare pendilo elarri eta eragin afluente. Suteingua eta amurtuak ustala jaso beldun, musikab, eta euskararen ingurua sortutako elusitena ustala, bere leku propioak esjitu eta sortutako beldunak berrienganatu ston.







TB TELEBISTA PEANA GAINEAN

B BANKUA

M MAHAIA

H HESIA

Z ZUTABEA

Azken hamarkadaotan beraien erreferentzialtasura apaltzen joan bada ere, azken ehun urteetan disketeek edo label diskografikoek ezinbesteko lana egin dute euskal musikaren izaera bera gorde eta jendaurrean aurkezteko garaien.

XX. mende hasieran, gramofonoen arabe-beteen, musikaren multinazionalizazioaren eragin ziren Columbia bezalako disketokan liuskal Herrian beraien fabrikari erantzuten hasi ziren, nagusiki atzerriko joeren arraketa hasiandik eta hasierareproduktuak gailuzko berriak penintsulan komertzializatzen.


Laister konfartu ziren ordea, merkaturari berri horietan errotzeko modu azkarrean bertako musikari argitaratze zela, souvenir logikarik egin arren.


Hamarkada batzuk beranduago diskogintzaren industriak izandako azalpena zabalte erraldoian oinarrituta, erdi-klientelitatean iparraldean lanean hasi ziren lehiakideak proiektuak (Geltzi, Hagoa, Agorri, Xoxoa...) musika

sotzilatzeko eredu berriak sortu zituzten, eta azkenik 80ko eta 90ko boomak irausun bittaren bitartean (Elkar, Eitan Ozeki, (Z, Gor...) disketeetan lan garrantzitsuen, euskari ardurabek elkarri eta benetazear gain, kuradoria izan da. Itazuetan arriko komertzial lamiak hartuz, eta basteetan merkatu segurak egonkortzeko intenzioarekin, disketeak utzi duten ondiarek osatzen du euskal musikaren katalogoaren zati handiena.

Zurriñen, azken hamarkadatan teknologia digitalak gogorren atundu duten kultur sektorea musikarena izan da. Gure kontsumo ohiturak eta ondorioz musikaren ekoizketa moduak errotik eraldatzen gain, kultura numerikoki diskaketa zentralizatetik baztertu ditu, artistaren independentzia usteko baten alde. Baina aldiaketa horrek bere aldeakotek ere izan ditu, ez nolazaitokok: garai egun, Silicon Valleyko zerbitzariak gordetzen dute euski musikaren ekoizpenaren zati handiena.

a parte dei due altri direttori della "Rivoluzione" (Giovanni De Michelis e Antonio Di Stefano) che, oltre a fare l'editoria, si occupano anche di politica. L'editore è un avvocato, un ex ministro della Giustizia, un ex ministro della Sanità e un ex ministro della Difesa: il professor Antonio Di Stefano, che ha fatto parte del governo di Bettino Craxi. Il giornale è stato fondato nel 1977 da un gruppo di intellettuali, tra cui il professor Di Stefano, che ha fatto parte del governo di Bettino Craxi. Il giornale è stato fondato nel 1977 da un gruppo di intellettuali, tra cui il professor Di Stefano, che ha fatto parte del governo di Bettino Craxi.





TB TELEBISTA PEANA GAINEAN

B BANKUA

M MAHAIA

H HESIA

Z ZUTABEA

HAIR


Garu eugui, eukal masi, kulfur
prekita nasional gini, modu
modaragangna eka liliogangna
mugutan den zerbitu da. Beharinda
mugutan den zerbitu den indan
ere, litura betane, amalan zina den
zerlinggihan garasi, prositu
mugutan den zerbitu den beburu
baturutan dikurangkan garasi.
Garihertihan abahutan mugutan
den zerbitu den eka liliogangna
anauk ecarzan diru. Eka eukalras
abahan eka den jalinah heristik
mugutan den zerbitu den eka liliogangna
kantarlian diru diru eka da beburu
asaher modernisatikan diru
den indan liliogangna diru
futuresasasasasas. Garu hasatulu
eukal kantaria gemero eka jeteru
den indan liliogangna diru
beruen karna dezika eukalras,
guterliran, frantulan, ingelase, eka
den indan liliogangna diru
muskari eka eukal kantaria
bana bafetika etiketa hiru holoko
den indan liliogangna diru
gari baten ten zakalan garu profitor.


Eukal masi, mahitase, korpazaga
porosaguna, hiriogadaga eka mahi
naha.

[illegible]

Illegittimo, dunque, il ricorso per Cassazione in quanto che la sentenza della Corte di Cassazione non ha mai avuto efficacia di cosa giudicata. In altre parole, la sentenza della Corte di Cassazione non ha mai avuto efficacia di cosa giudicata, e, per conseguenza, non ha mai avuto efficacia di cosa giudicata.

► II EUSKARAREN HIBRIDAZIOAK





TB TELEBISTA PEANA GAINEAN

B BANKUA

M MAHAIA

H HESIA

Z ZUTABEA



katebegiak




BERA

ENTZUN

Gaztelondon
zer berri


Atanas
Akerstra

BALERDI
BALERDI



Underribi





TB TELEBISTA PEANA GAINEAN

B BANKUA

M MAHAIA

H HESIA

Z ZUTABEA

(MERCHANDISING)

MUSIKA BULEGOAK AURKEZTEN DU

KANTHORIA
ETA AUTO-TUNEA

EUSKARAZ EGINDAKO MUSIKAREN IBILBIDEA

◀ ERAKUSKETA ▶

BIRA
(BIZKAIA) (GIPUZKOA) (ARABA) (NAFARROA)DOAN
BILBO
AZA.6 - ABE.4
(ABANDO UDALTEGIA)

BARRAINKUA KALEA 5, BILBO

INAUGURAZIO OFIZIALA: AZAROAK 6, 19:00ETAN

ANTOLATZAILE:  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA

MUSIKA BULEGOAK AURKEZTEN DU

ERAKUSKETA
AZA.6-ABE.4 **KANTHORIA ETA
AUTO-TUNEA** BILBO
(BIZKAIA)◀ EZ DOK AMAIRU-ZETAK
KORTATU-KEPA JUNKERA-MAIXA
TA IXIAR-OSKORRI-TAPIA
ETA LETURIA-CHILLMAFIA
JOTA MARTINA-ESKORBUTO
MIKEL URDANGARIN-BENITO
LERTXUNDI-SU TA GAR-MIKEL
LABOA-FERMIN MUGURUZA-ZEA
MAYS-IZARO-BULEGO ▶

EUSKARAZ EGINDAKO MUSIKAREN IBILBIDEA

ANTOLATZAILE:  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA

MUSIKA BULEGOAK AURKEZTEN DU

EUSKARAZ EGINDAKO MUSIKAREN IBILBIDEA
KANTHORIA ETA AUTO-TUNEABILBO
(BIZKAIA)

ERAKUSKETA

ABANDO
UDALTEGIA

AZAROAK 6, 19:00

BISITA GIDATUA XABI ERKIZIAREKIN

ZUZENKO HIRU MUSIKA PIEZA:
BELAKO (DUO AKUSTIKOAN), IBONRG ETA MOXAL.

AZAROAK 20, 19:00

'KANTAGINTZAREN JOANETORRIAK' MAHAI
INGURUA. GIDARITZA: XABIER ERKIZIA.

AZAROAK 27

BISITA GIDATUA JON BAGÜESEKIN

↻ AZAROAK 6 - ABENDUAK 4 ↻

ANTOLATZAILE:  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA

MUSIKA BULEGOAK AURKEZTEN DU

ERAKUSKETA
**KANTHORIA
ETA AUTO-TUNEA**

↻ 2025 BIRA ↻

BILBO

ZUZENEAN
ZURE HIRIAN

EUSKARAZ EGINDAKO MUSIKAREN IBILBIDEA

AZAROAK 6 — ABENDUAK 4
BILBO (BIZKAIA)
ABANDO UDALTEGIA (BARRAINKUA KALEA 5)ANTOLATZAILE:  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA  BARRAINKUA

ESKERRIK ASKO